



# **BIOKIMIKAKO ETA BIOLOGIA MOLEKULARREKO GRADUA**

**Zientzia eta Teknologia Fakultatea**

**Lehenengo Mailako Ikaslearen Gida  
(32 taldea- Euskara)**

**2015-2016 Ikasturtea**

## **Edukien taula**

<b>1.- BIOKIMIKAKO ETA BIOLOGIA MOLEKULARREKO GRADUARI BURUZKO INFORMAZIOA.....</b>	<b>3</b>
AURKEZPENA.....	3
TITULAZIOAREN GAITASUNAK.....	4
GRADUKO IKASKETEN EGITURA .....	4
LEHENENGO MAILAKO IRAKASGAIAK GRADUAREN TESTUINGURUAN .....	6
EGIN BEHARREKO JARDUERA MOTAK.....	6
TUTORETZA PLANA.....	7
SEGURTASUNA.....	8
BESTELAKO INFORMAZIO INTERESGARRIA .....	9
<b>2.- 32 TALDEARENTZAKO INFORMAZIO ESPEZIFIKOA .....</b>	<b>10</b>
TALDEARI DAGOZKION JARDUEREN EGUTEGIA.....	10
TALDEKO IRAKASLEAK .....	12
<b>3.- LEHENENGO MAILAKO IRAKASGAIEI BURUZKO INFORMAZIOA .....</b>	<b>13</b>
URTE OSOKOAK.....	13
LEHENENGO LAUHILEKOKOAK .....	15
BIGARREN LAUHILEKOKOAK.....	16



---

## 1.- Biokimikako eta Biologia Molekularreko Graduari buruzko informazioa

---

### *Aurkezpena*

---

Biokimikak eta biologia molekularrak izaki bizidunak aztertzen dituzte, molekulen ikuspegitik begiratuta, eta funtsezko diziplina bilakatu dira gaur egun ezagutzen oinarritutako ekonomia izenaz ezagutzen dugunaren garapenerako. Biokimikarien eta biologo molekularren erronka ezagutza hori, besteak beste, osasunarekin, elikadurarekin, ingurumenarekin eta hazkunde iraunkorrarekin zerikusia duten arazoak konpontzeko aplikatzean datza.

Titulazio honek ondorengo helburuak ezartzen dizkie ikasleei:
<p>Energia eta informazioa transferitzeko bide metabolikoak eta sistema molekularrak ezagutzea, baita prozesu horien erregulazio integratua ere.</p> <p>Prozesu horiek ebaluatzeko metodo egokiak erabiltzeko gai izatea eta ehunen, organoen eta sistemen funtzionaltasunean duten zeregin garrantzitsua ulertzea.</p> <p>Biokimika estrukturalaren edo biomedikuntzan aplikazioak dituen biokimika fisiologikoagoaren esparruan gehiago sakontzea.</p>

Biokimikako eta Biologia Molekularreko Graduan lortu beharreko prestakuntzak esparru profesional askotara sartzeko aukera ematen du. Horien artean, ondorengoak dira nabarmenenak:

Esparru profesionala
<p>Oinarrizko ikerketa edo ikerketa aplikatua unibertsitateetan, ikerketa zentro publikoetan eta pribatuetan, eta farmaziaren, kimikaren, elikaduraren eta osasunaren sektoreko enpresetako I+G+B sailetan.</p> <p>Biokimikako prozesuen aplikazio teknologikoa, elikagaien, kimikaren, kosmetikaren, famaziaren edo osasunaren sektorean produktu berriak ekoizteko eta garatzeko.</p> <p>Ikerketa biokimikoak, genetikoak, immunologikoak eta mikrobiologikoak, eta horien aplikazio klinikoak eta ingurumenekoak.</p> <p>Irakaskuntza bigarren hezkuntzan, lanbide heziketan, eskola teknikoetan eta unibertsitateetan.</p>

## Titulazioaren gaitasunak

Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua egiten duen heinean, ikasleak ondorengo gaitasunak bereganatuko ditu:

### Hartu beharreko gaitasunak

Matematikako, fisikako eta kimikako oinarritzko ezagutzak ulertzea eta biokimikari eta biologia molekularrari aplikatzea.

Organismoak maila molekularrean ulertzea eta ezagutza hori egituren, metabolismoen eta zelulen ezagutzekin osatzea.

Funtzionamendu fisiologiko normala edo patologikoa maila molekularretik interpretatzea.

Biokimikako eta biologia molekularreko laborategi batean erabiltzen diren teknika nagusien printzipioak, tresnak eta aplikazioak ezagutzea eta menperatzea.

Arazo zehatzak konpontzeko estrategia esperimentalak diseinatzea eta lortutako emaitzak modu kritikoan deskribatzea, kuantifikatzea, aztertzea, ebaluatzea eta interpretatzea.

Gaiari buruzko literatura zientifikoa eta teknikoa ezagutzea.

Datu base biologikoetako eta bibliografikoetako informazioa bilatzea, hautatzea, aztertzea eta interpretatzea, eta oinarritzko tresna bioinformatikoak erabiltzea.

Taldeko lanera egokitzea eta ezagutzak esparruko beste profesional batzuei eta/edo espezializatu gabeko publikoari helarazten jakitea.

Beren jarduera profesionalak dituen ondorio etikoak, sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak hautematea.

## Graduko ikasketen egitura

Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua 4 mailatan dago banatuta (bakoitza 60 ECTSkoa). Lehenengo ikasturtean, ondorengo biokimikako espezializazioaren oinarri zientifiko eta biologiko nagusiak ezartzen dira. Bigarren eta hirugarren mailetan, ikasleak izaki bizidunen funtzionamendua organismoko molekulen ikuspuntutik ulertzeko, aztertzeko eta interpretatzeko beharrezko prestakuntza jasotzen du. Laugarren mailan, azkenengoan, ikasleak biokimikako eta biologia molekularreko alderdi aurreratuagoetan sakontzeko aukera du eta baita gaiaren esparru profesionalean ere, bereziki, Gradu Amaierako Lanaren eta hautazko irakasgaien bidez.

Eskainitako ikasle berrientzako plaza kop.: 40

Tituluaren ECTS kreditu kop.: 240

Matrikulako gutxieneko ECTS kreditu kop.: 30

Prestakuntza prozesuan zehar erabiliko diren hizkuntzak: gaztelania/euskara/ingeleza

Maila	Lauhilekoa	Irakasgaia	ECTS
<b>1.a</b>	Urte osokoa	Fisika	9
		Oinarrizko Metodologia Biokimikoa	9
	1.a	Matematika	6
		Kimika	6
		Zelulen Biologia	6
		Biokimika I	6
	2.a	Biokimika II	6
		Bioestatistika	6
		Teknika Histologikoak eta Zelulen Hazkuntzak	6
<b>2.a</b>	1.a	Genetika	6
		Mikrobiologia	6
		Termodinamika eta Zinetika Kimikoa	6
		Metabolismoaren Erregulazioa	6
		Makromolekulen Biosintesia eta Erregulazioa	6
	2.a	Immunologia	6
		Teknika Instrumentalak	6
		Zelulen Seinaleztapena	6
		Proteomika eta Proteinen Egitura eta Ingeniaritza	6
		DNA Birkonbinatzailearen Teknologia	6
<b>3.a</b>	1.a	Animalien Fisiologia	6
		Landareen Fisiologia	6
		Giza Genetika	6
		Biologia Molekularreko Metodoak	6
		Biofisika	6
	2.a	Zuzenbidea eta Etika Biozientzietan	6
		Biokatalisia	6
		Biomolekulen Espektroskopia	6
		Bioinformatika	6
<b>4.a</b>	Urte osokoa	Hautazko Irakasgaiak (8)	4,5
		Gradu Amaierako Lana	12
	1.a	Biokimikako Metodo Aurreratuak	6
	2.a	Biologia Estrukturala: Aplikazio Biomedikoak	6

## Lehenengo mailako irakasgaiak Graduaren testuinguruan

Biokimikako eta Biologia Molekularreko Graduak lehenengo mailaren zati handi bat Biologiako eta Bioteknologiako graduarekin dago partekatuta, eta ikasleari Graduak ezagutza espezifikoaren oinarria izango den oinarritzko prestakuntza ematen dio. Oinarritzko prestakuntza zientifikoa *Matematika*, *Bioestatistika*, *Fisika* eta *Kimikari* dagokie. Horiek guztiak **Oinarri Zientifiko Orokorrak** izeneko moduluak barne hartzen ditu. Bestalde, hasiera ematen zaio biologiako prestakuntzari (gradu honetan garrantzi handia du), *Zelulen Biologia* eta *Teknika Histologikoak eta Zelulen Hazkuntzak* irakasgaien bidez. Bi irakasgai horiek **Oinarritzko Ezagutza Biologian** moduluaren barnean sartzen dira. *Biokimika I* eta *Biokimika II* irakasgaiak **Biokimika eta Biologia Molekularra** izeneko moduluaren barnean daude eta biokimikari edo biologo molekular baten prestakuntzarako nahitaezkoak diren oinarri molekularrak eskaintzen dizkiete ikasleei. Amaitzeko, **Metodo Instrumental Kuantitatiboak eta Sistemen Biologia Molekularra** moduluko *Oinarritzko Metodologia Biokimikoa* irakasgaiak Biokimikako eta Biologia Molekularreko Graduak oinarritzko prestakuntza esperimentalaren hasiera zehazten du. Ikasleek lehenengo maila horretan eskuratuko dituzten edo eskuratzen hasiko diren gaitasun zehatzak ondorengo puntuetan laburbil daitezke:

### Graduko lehenengo mailan hartu beharreko gaitasunak

Biomolekulen propietateak zehazten dituzten eta parte hartzen duten erreakzioak gidatzen dituzten oinarri kimikoak eta fisikoak ezagutzea eta aplikatzea.  
 Zelulen egituraren, funtzioaren eta erregulazioaren ikuspegi osatua lortzea.  
 Biokimikako, biologia molekularreko, zitologiako eta histologiako teknika nagusien printzipioak, tresnak eta aplikazioak ezagutzea.  
 Laborategiko praktikak modu egokian gauzatzeko gaitasunak eskuratzea.  
 Praktikan lortutako emaitzak aztertzea, metodo estatistikoak aplikatuta.  
 Iturri bibliografikoetatik eta datu baseetatik informazioa ateratzen eta tresna bioinformatikoak erabiliz aztertzen jakitea.

## Egin beharreko jarduera motak

Biokimikako eta Biologia Molekularreko Graduan, eskola magistralak, mintegiak eta laborategiko eta ordenagailuko praktikak ikasketarako funtsezko irakaskuntza modalitateak dira. Horiek guztiak lehenengo mailatik erabiltzen dira, baina gai bakoitzaren ikasketan garrantzi erlatibo handiagoa hartzen dute pixkanaka, ikasleak Graduan aurrera egiten duen heinean. Irakaskuntza modalitate horiek guztiak erabiltzeak graduatua lan mundurako prestatzen dela eta bere jarduketara esparruko gaitasun tekniko, metodologiko eta intelektualak garatzen dituela bermatzen du.

## ***Tutoretza Plana***

Tutoretza Planak ikasleei unibertsitate bizitzan sartzen lagunduko dien eta beren ibilbide akademiko osoan orientazioa emango dien tutore bat izateko aukera ematen die.

Biokimikako eta Biologia Molekularreko ikasle bakoitzari tutore bat esleitu zaio, lehenengo maila hastean. Esleipen hori indarrean egongo da ikasleak Biokimikako eta Biologia Molekularreko graduatua lortu arte. Justifikatutako arrazoiak izanez gero, tutoreek eta ikasleek esleipena berriro egiteko eska dezakete, Biokimikako eta Biologia Molekularreko Graduako Tutoretza Plana koordinatzen duen pertsonaren bitartez.

### **Tutoreen konpromisoa**

Prestakuntza integraleko prozesuan ikasleei laguntzea, ikuspegi akademiko, pertsonal eta profesionalen.

Ikasleei Fakultatearen jardura akademikoan integratzen laguntzea.

Ikasleei unibertsitatean eskuragarri dituzten zerbitzu eta jardueren berri ematea.

Ikasketa aldian ager daitezkeen zailtasunak identifikatzea eta ikasteko gaitasun eta estrategien garapena erraztea.

Curriculum ibilbidea aukeratzearen inguruko erabakiak hartzeko aholku ematea.

Ikasleen garapen akademiko eta profesionalerako interesgarria izan daitekeen informazioa ematea.

Ikasturteko lehen asteetan, tutore bakoitza esleitu dizkieten ikasleekin harremanetan jarriko da, unibertsitateko posta elektronikoaren bidez, tutoretza prozedura eta Tutoretza Planaren barnean programatutako jardueren egutegia zehazteko.

### **Ikasleen Tutoretza Planarekiko konpromisoa**

Tutoretza Planean programatutako bileretara joatea.

Ikasturtea amaitzean programa ebaluatzea.

Irakasle tutorearekin beren tutoretza taldeko ikasle berrienak orientatzeko eginkizunetan elkarlanean aritzea (mentoreak).

## Segurtasuna

### Jarduera akademikoan hartu beharreko segurtasun neurriak

Oro har, ikasle orok bere inguruan dauden segurtasun elementuetara ohitu behar du (su itzalgailuak, mahukak, segurtasun dutexak eta begiak garbitzekoak non dauden jakin behar du).

Ikasle guztiek ezagutu behar dituzte larrialdietarako irteera nagusiak. Gainera, irteera horiek errespetatu egin behar dira eta horietan oztupo izango den elementurik egotea saihestu behar da.

Laborategiko praktikak, tailerrak eta landa lanak egin bitartean, horietaz arduratzen diren irakasleek Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Printzipioak aplikatuko dituzte, baita praktiketan jardunbide egokien kodigoak betetzen direla zaindu ere.

Laborategirako sarbidea mugatua izango da eta irakasle arduradunek kontrolatuko dute.

### Norbera babesteko ekipamenduen erabilera (NBE)

Laborategiko praktiketan ezinbestekoa da bata erabiltzea. Ikaslea arduratuko da bata erosteaz. Ikastegiko Atezaintza Zerbitzuan erabilera bakarreko bata eskura daitezke, aurrez ordainduta.

Irakasleek hala eskatuz gero, segurtasun betaurrekoak erabili beharko dira. Ikasleak arduratuko dira norbera babesteko ekipa hau erosteaz.

Beharrezkoa izanez gero, erabili eta botatzeko eskularruak banatuko dira produktu arriskutsuekin lan egiterakoan eskuak babesteko.



## ***Bestelako informazio interesgarria***

---

Biokimikako eta Biologia Molekularreko Graduko koordinatzailea: Mercedes Martínez-Bilbao, Biokimika eta Biologia Molekularra Saila ([mercedes.martinezb@ehu.es](mailto:mercedes.martinezb@ehu.es), 94 601 3372, CD4.P04)

1. mailako koordinatzailea: Maier Lorizate Nogales, Biokimika eta Biologia Molekularra Saila ([maier.lorizate@ehu.es](mailto:maier.lorizate@ehu.es), 94 601 7930, CD3.P017)

TPren koordinatzailea: Juan Manuel González-Mañas, Biokimika eta Biologia Molekularra Saila ([juanmanuel.gonzalez@ehu.es](mailto:juanmanuel.gonzalez@ehu.es), 94 601 5379, CD4.P05)

## 2.- 32 taldearentzako informazio espezifikoa

### Taldeari dagozkion jardueren egutegia 1. Lauhilabetea: 1-15 Asteak

1. Lauhilabetea	Astlehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:40 9:30	FIS (S1) [11 , 15] <1.4> FIS (T) [1-10 , 12-14] <2.6>	FIS (T) [1-9] <2.6>	FIS (GA1) <1.4>	KIM (GA1) [5 , 10-13 {1/3}] <1.4>	KIM (GA1) [2-4 , 6-9 , 11-15] <1.4>
9:40 10:30	BKI (S1) [14-15] <1.4> BKI (T) [1-13] <1.4>	KIM (T) [1-12] <1.4>	BZEL (S1) [13-15] <1.4> BZEL (T) [1-12] <1.4>	BZEL (T) [1-12] <1.4>	BZEL (T) [1-12] <1.4>
10:40 11:30	OB.MET (T) [1-10] <1.4>	OB.MET (T) [1-10] <1.4>	KIM (T) [1-12] <1.4>	MAT (T) <1.4>	BKI (T) [1-12] <1.4>
12:00 12:50	KIM (T) [1-12] <1.4>	MAT (T) <1.4>		MAT (GA1) <1.4>	MAT (S1) [9] <1.4> MAT (T) [1-6] <1.4>
13:00 13:50		BKI (T) [1-12] <1.4>		BKI (GA1) [3-14] {2/2} <1.4> BZEL (GA1) [3-13] {1/2} <1.4>	MAT (S1) [4] <1.4>
14:00 14:50			BZEL (GL1) [11-12] BZEL (GL3) [3-8] {1/5}		
15:00 15:50	BKI (GL1) [8] BKI (GO1) [9] <AI-2> BZEL (GL1) [3] MAT (GO1) [7] <AI-2> OB.MET (GL3) [13] OB.MET (GO1) [4] <AI-3>	BKI (GL1) [8] BZEL (GL1) [2-6] {1/4} BZEL (GL3) [7 , 12] KIM (GL1) [3] OB.MET (GL1) [10 , 12]	BZEL (GL1) [11-12] BZEL (GL3) [3-8] {1/5} BKI (GL3) [4 , 6 , 11] MAT (GO1) [13] <AI-3> OB.MET (GL3) [10-12 {1/2}]	BKI (GL1) [13] BKI (GL3) [6 , 13] BZEL (GL3) [4 , 11] OB.MET (GO1) [4] <AI-3>	BKI (GL1) [3 , 11] BZEL (GL1) [4-8] {1/4} KIM (GL1) [6] KIM (GL3) [3-5] {1/2} KIM (GO1) [9] <AI-1> OB.MET (GL1) [12]
15:55 16:45	BKI (GL1) [8] BKI (GO1) [9] <AI-2> BZEL (GL1) [3] MAT (GO1) [7] <AI-2> OB.MET (GL3) [13] OB.MET (GO1) [4] <AI-3>	BKI (GL1) [8] BZEL (GL1) [2-6] {1/4} BZEL (GL3) [7 , 12] KIM (GL1) [3] OB.MET (GL1) [10 , 12]	BKI (GL3) [4 , 6 , 11] MAT (GO1) [13] <AI-3> OB.MET (GL3) [10-12 {1/2}] BZEL (GL3) [2]	BKI (GL1) [13] BKI (GL3) [6 , 13] BZEL (GL3) [4 , 11] OB.MET (GO1) [4] <AI-3>	BKI (GL1) [3 , 11] BZEL (GL1) [4-8] {1/4} KIM (GL1) [6] KIM (GL3) [3-5] {1/2} KIM (GO1) [9] <AI-1> OB.MET (GL1) [12]
17:00 17:50	BKI (GL1) [8] BKI (GO1) [9] <AI-2> MAT (GO1) [7] <AI-2> OB.MET (GL3) [13] OB.MET (GO1) [4] <AI-3>	BKI (GL1) [8] KIM (GL1) [3] OB.MET (GL1) [10 , 12]	BKI (GL3) [4 , 6 , 11] MAT (GO1) [13] <AI-3> OB.MET (GL3) [10-12 {1/2}] BZEL (GL3) [2]	BKI (GL1) [13] BKI (GL3) [6 , 13]	BKI (GL1) [3 , 11] KIM (GL1) [6] KIM (GL3) [3-5] {1/2} KIM (GO1) [9] <AI-1> OB.MET (GL1) [12]

## 2. Lauhilabetea: 16-30 Asteak

2. Lauhilabetea	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:40 9:30	FIS (T)	FIS (T)	FIS (GA1) [16-25]	FIS (GA1) [26-29]	FIS (GA1) [28] FIS (S1) [20-24] {1/2} FIS (T) [16-17]
9:40 10:30	BEST (T)	BKII (GA1) [29] BKII (T) [16-28] FIS (GA1) [30]	BEST (T)	BKII (GA1) [29] BKII (T) [16-28]	OB.MET (S1) [20-30] {1/2}
10:40 11:30	OB.MET (GA1) [26-30] OB.MET (T) [16-25]	OB.MET (GA1) [26-30] OB.MET (T) [16-25]	BKII (GA1) [29] BKII (T) [16-28]	BEST (GA1) [17-21] {1/2}, 24-26 {1/2}, 29 BEST (GA2) [17-25] {1/2} BEST (T) [16-22] {1/2}, 27-28	BKII (GA1) [18-28] {1/2}
12:00 12:50	TEK.H (T)	TEK.H (T)		BEST (GO1) [18-26] {1/2}, 29 TEK.H (GA1) [28]	BEST (GO2) [18-22] {1/2} TEK.H (GA1) [21]
13:00 13:50	TEK.H (S1) [21, 27]	BEST (GA2) [30]		BEST (GO1) [18-26] {1/2}, 29 TEK.H (GA1) [28] BKII (GA1) [16-21] {2/2}, 27	BEST (GO2) [18-22] {1/2} TEK.H (GA1) [21]
14:00 14:50					
15:00 15:50	BEST (GO1) [24] BEST (GO2) [28-30] OB.MET (GL1) [18] OB.MET (GL3) [21] TEK.H (GL1) [19]	BEST (GO1) [27-28, 30] BKII (GL1) [21] BKII (GL3) [19, 22, 25] OB.MET (GL1) [18] OB.MET (GL3) [21]	BKII (GL1) [25, 30] BKII (GL3) [30] OB.MET (GL1) [18] OB.MET (GL3) [21] TEK.H (GL1) [17, 19] TEK.H (GL3) [29]	BEST (GO2) [26-27] BKII (GL1) [19] OB.MET (GL1) [18] OB.MET (GL3) [21] TEK.H (GL1) [17, 27-28] TEK.H (GL3) [20-22] {1/2}, 25, 27-28, 29	TEK.H (GL3) [29]
15:55 16:45	BEST (GO1) [24] BEST (GO2) [28-30] OB.MET (GL1) [18] OB.MET (GL3) [21] TEK.H (GL1) [19]	BEST (GO1) [27-28, 30] BKII (GL1) [21] BKII (GL3) [19, 22, 25] OB.MET (GL1) [18] OB.MET (GL3) [21]	BKII (GL1) [25, 30] BKII (GL3) [30] OB.MET (GL1) [18] OB.MET (GL3) [21] TEK.H (GL1) [17, 19] TEK.H (GL3) [29]	BEST (GO2) [26-27] BKII (GL1) [19] OB.MET (GL1) [18] OB.MET (GL3) [21] TEK.H (GL1) [17, 27-28] TEK.H (GL3) [20-22] {1/2}, 25, 27-28, 29	TEK.H (GL3) [29]
17:00 17:50	OB.MET (GL1) [18] OB.MET (GL3) [21] BEST (GO2) [24] TEK.H (GL3) [19]	BKII (GL1) [21] BKII (GL3) [19, 22, 25] OB.MET (GL1) [18] OB.MET (GL3) [21]	BKII (GL1) [25] OB.MET (GL1) [18] OB.MET (GL3) [21] TEK.H (GL1) [17, 19] TEK.H (GL3) [29]	BKII (GL1) [19] OB.MET (GL1) [18] OB.MET (GL3) [21] TEK.H (GL3) [20-22] {1/2} TEK.H (GL1) [20-22 {1/2}, 25, 29] TEK.H (GL3) [17]	TEK.H (GL1) [29]
17:55 18:45	OB.MET (GL1) [18] OB.MET (GL3) [21] BEST (GO2) [24] TEK.H (GL3) [19]	BKII (GL1) [21] BKII (GL3) [19, 22, 25] OB.MET (GL1) [18] OB.MET (GL3) [21]	BKII (GL1) [25] OB.MET (GL1) [18] OB.MET (GL3) [21] TEK.H (GL1) [29] TEK.H (GL3) [17, 19]	BKII (GL1) [19] OB.MET (GL1) [18] OB.MET (GL3) [21] TEK.H (GL3) [20-22] {1/2} TEK.H (GL1) [20-22 {1/2}, 25, 29] TEK.H (GL3) [17]	TEK.H (GL1) [29]

## Taldeko irakasleak

IRAKASGAIA	IRAKASLEA (saila)	Telefonoa Helbide elektronikoa
BIOESTADISTIKA	<b>Irantzu Barrio</b> (Matematika Aplikatua, Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa) <b>Inmaculada Arostegui</b> (Matematika Aplikatua, Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa)	94 601 2504 <a href="mailto:irantzu.barrio@ehu.eus">irantzu.barrio@ehu.eus</a>  94 601 5346 <a href="mailto:inmaculada.arostegui@ehu.eus">inmaculada.arostegui@ehu.eus</a>
BIOKIMIKA I	<b>Helena Amaya Ostolaza</b> (Biokimika eta Biologia Molekularra)	94 601 5538 <a href="mailto:elenaamaya.ostolaza@ehu.eus">elenaamaya.ostolaza@ehu.eus</a>
BIOKIMIKA II	<b>Mercedes Martinez Bilbao</b> (Biokimika eta Biologia Molekularra)	94 601 3372 <a href="mailto:mercedes.martinezb@ehu.eus">mercedes.martinezb@ehu.eus</a>
FISIKA	<b>Iñaki Garay</b> (Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historia)	94 601 2593 <a href="mailto:inaki.garay@ehu.eus">inaki.garay@ehu.eus</a>
KIMIKA	<b>Sonia Arrasate</b> (Kimika Organikoa II) <b>Uxue Uria</b> (Kimika Organikoa II)	94 601 2730 <a href="mailto:sonia.arrasate@ehu.eus">sonia.arrasate@ehu.eus</a> 94 601 2633 <a href="mailto:uxue.uria@ehu.eus">uxue.uria@ehu.eus</a>
MATEMATIKA	<b>Leyre Ormaetxea</b> (Matematika) <b>Leire Legarreta</b> (Matematika)	94 601 5473 <a href="mailto:leyre.ormaetxea@ehu.eus">leyre.ormaetxea@ehu.eus</a>  94 601 5464 <a href="mailto:leire.legarreta@ehu.eus">leire.legarreta@ehu.eus</a>
OINARRIZKO METODOLOGIA BIOKIMIKOA	<b>Miren Josu Omaetxebarria</b> (Biokimika eta Biologia Molekularra) <b>Maier Lorizate Nogales</b> (Biokimika eta Biologia Molekularra) <b>Oihana Terrones</b> (Biokimika eta Biologia Molekularra)	94 601 2287 <a href="mailto:mirenjosu.omaetxebarria@ehu.eus">mirenjosu.omaetxebarria@ehu.eus</a>  94 601 7930 <a href="mailto:maier.lorizate@ehu.eus">maier.lorizate@ehu.eus</a>  94 601 3429 <a href="mailto:oihana.terrones@ehu.eus">oihana.terrones@ehu.eus</a>
TEKNIKA HISTOLOGIKOAK ETA ZELULEN HAZKUNTZAK	<b>Beñat Zaldibar</b> (Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia)	94 601 2696 <a href="mailto:benat.zaldibar@ehu.eus">benat.zaldibar@ehu.eus</a>
ZELULEN BIOLOGIA	<b>Amaia Orbea</b> (Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia) <b>Eider Bilbao</b> (Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia) <b>Maren Ortiz</b> (Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia) <b>Urtzi Izaguirre</b> (Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia)	94 601 2735 <a href="mailto:amaia.orbea@ehu.eus">amaia.orbea@ehu.eus</a> 94 601 3549 <a href="mailto:eider.bilbao@ehu.eus">eider.bilbao@ehu.eus</a> 94 601 3548 <a href="mailto:maren.ortiz@ehu.eus">maren.ortiz@ehu.eus</a> 94 601 8449 <a href="mailto:urtzi.izaguirre@ehu.eus">urtzi.izaguirre@ehu.eus</a>

---

### **3.- Lehenengo mailako irakasgaiei buruzko informazioa**

---

#### ***Urte osokoak***

---

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2014/15

**Ikastegia** 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

**Zikl.** Zehaztugabea

**Plana** GBIOQU30 - Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua

**Ikastaroa** 1. maila

**IRAKASGAIA**

27806 - Fisika

**ECTS kredituak:** 9

**GAITASUNAK / AZALPENA / HELBURUAK**

Natura helburutzat duen zientziak Fisikan oinarritu behar ditugu, hots, fenomeno fisikoen azalpen sistematiko eta funtsezkoetan. Hori dela eta, Biologia eta Geologia ikasteko beharrezkoak diren Fisikaren atal batzuk aztertuak izango dira irakasgai honetan. Unitateak eta dimentsioak aztertuz gero, mekanikaren elementuak aztergai izango ditugu; ondoren termodinamika eta barreiatze prozesuak. Hauen ostean, jariakinak. Elektromagnetikak emango digu uhinetarako eta optikarako sarbidea. Azkenez, erradioaktibitateari buruzko sarreratxoa.

**GAI ZERREDA**

- KONTZEPTU OROKORRAK:** unitate sistemak. Dimentsio analisia. Eskala legeak.
- MEKANIKARAKO SARRERA:** higidura uniformea. Azelerazio uniformeko higidura. Momentu lineala. Indarra. Estatika. Biomekanika. Newtonen legeak. Lana, energia, potentzia. Materialen propietate elastikoak.
- JARIAKINAK:** A) Hidrostatika. Dentsitatea. Presioa. Presio atmosferikoa. Flotazioa. B) Hidrodinamika. Jariakinen idealen jariora. Bernoulliren ekuazioa. Venturi efektua. C) Jariakin biskosen jariora. Poiseuilleren legea. Reynoldsen zenbakia. Stokesen legea. Odolaren jariora. D) Gainazaleko tentsioa. Laplaceren legea. Kapilaritatea.
- TERMODINAMIKA:** tenperatura eskalak. Beroa. Bero ahalmena. Kalorimetria. Termodinamikaren lehen printzipioa. Entropia. Termodinamikaren bigarren printzipioa. Metabolismoa. Fase transizioak eta fase diagramak. Bero hedapena: eroapena, konbekzioa, igorpena.
- BARREIATZE PROZESUAK:** talkak eta batez besteko ibilbide askea. Ficken legea. Barreiatze geldikorra. Barreiatze termikoa: Fourieren legea. Barreiatzea eta arrastea. Barreiatzea disoluzioetan. Nernsten legea. Osmosia.
- ELEKTROMAGNETIKA:** karga elektrikoa. Coulomben legea. Eremu elektrikoa eta potentzial elektrikoa. Gaussen teorema. Kapazitate elektrikoa eta kondentsadoreak. Dipolo elektrikoa. Korronea. Ohmen legea. Erresistentzia. Energia elektrikoaren iturriak. Zirkuito elektrikoaren potentzia. Zirkuitoak. Nerbio eroalpena. Eremu magnetikoa. Higitzen den karga baten gaineko indarra. Masa espektrometroa.
- UHIKAK ETA OPTIKA:** Uhin higidura. Uhin motak. Uhin pultsuak eta uhin periodikoak. Uhin interferentzia eta uhin geldikorrak. Doppler efektua. Soinua eta ultrasoinua. Uhin elektromagnetikoak. Espektrorik elektromagnetikoa. Errefrakzio indizea. Argiaren islapena eta errefrakzioa. Difrakzioa. Polarizazioa. Ispiluak eta leiarrak. Mikroskopio optikoa. Begia.
- ERRADIOAKTIBITATEA:** nukleoa. Masa zenbakia eta atomo zenbakia. Isotopoak. Deuseztapen legea. Aktibitatea. Datazioa. Materia/erradioazio elkarrekintza. Efektu biologikoak

**IRAKASKUNTZA MOTAK**

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	54	5	31						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	81	7,5	46,5						

**Legenda:** M: Maistrala S: Mintegia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.  
GCL: P. klinikako TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

**Argibideak:**
**EBALUAZIOA**

- Garatu beharreko azterketa idatzia
- Test motako azterketa idatzia
- Praktika (ariketak, kasuak edo buruketak)

**Argibideak:**

Bai partzial bakarrean (1. partziala) bai finalean, azterketaren %30 test modukoa izango da eta beste %70 ariketa azterketa.

Urtean zehar test pare bat eta entregatzeko ariketa sorta izango dira. Horren bidez notaren %20a lortuko dute ikasleok. Lehen partziala gaindituz gero, azterketei dagokien notaren herena hortik hartuko da, eta beste bi herenak azterketa finaletik datoz.

Ezohiko deialdiko nota osoa azterketaren bidez gauzatuko da.

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

## BIBLIOGRAFIA

### Oinarritzko bibliografia

FISICA ZIENTZIALARI ETA INGENIARIENTZAT. P. M. Fishbane, S. Gasiorowicz, and S. T. Thornton. Euskal Herriko Unibertsitatea (2008)

Física para ciencias de la vida. Jou i Mirabent, David. McGraw-Hill (2009).

Física. W. Kane y M.M. Sternheim. Reverté (2ª edición 1996)

Física para las Ciencias de la Vida. A. Cromer. Reverté (2ª edición 1996)

### Gehiago sakontzeko bibliografia

Física para Ciencias e Ingeniería. (2 volúmenes) R. A. Serway y J. W. Jewett. Thomson-Paraninfo (2005)

Física biológica: energía, información, vida. P. Nelson. Reverté (2005).

Física. (2 volúmenes) P. A. Tipler Reverté (4ª edición 2000).

Física de los procesos biológicos. F. Cussó, C. López y R. Villar. Ariel. (1ª edición 2004).

Introducción a la Física y a la Biofísica. J. González Ibeas. Alhambra (1974).

Física. D. Tilley y W. Thumm. Fondo Educativo Interamericano (1976).

Physics for Scientists and Engineers. P. M. Fishbane, S. Gasiorowicz, and S. T. Thornton. Prentice Hall (1996).

### Aldizkariak

### Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.sc.ehu.es/sbweb/fisica/>

<http://www.colos.org/>

<http://webphysics.davidson.edu/Applets/TaiwanUniv/index.html>

<b>IRAKASKUNTZA-GIDA</b>		2015/16	
<b>Ikastegia</b>	310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea	<b>Zikl.</b>	Zehaztugabea
<b>Plana</b>	GBIOQU30 - Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua	<b>Ikastaroa</b>	1. maila
<b>IRAKASGAIA</b>			
26721 - Oinarrizko Metodologia Biokimikoa		<b>ECTS kredituak:</b>	9
<b>IRAKASGAIAAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA</b>			
<p>Oinarrizko Metodologia Biokimikoa ikasgaia, ikasgai praktikoa dugu ia bere osotasunean. Ikerketa-zentro, bioteknologia-industria edo akademiako laborategietan lan egiteko oinarrizkoak diren ezagutzak jasoko dituzue. Bibliografiaren erabilera, esperimentuen diseinua, segurtasuna laborategian eta etika landuko ditugu lehen lauhilekoan; aipaturiko ezagutza hauek graduan zehar ikerketa-lanak aurkezteko orduan baliogarriak izango zazikizue. Bigarren lauhilekoan, graduan zehar laborategiko jardueratan erabiliko dituzuen tekniken oinarrizko ezagutza eta trebetasuna jasoko duzue. OMBko 2. lauhilekoko ikaskuntza aktibitateek lotura zuzena izango dute 2. mailako Teknika instrumentalak izeneko ikasgaiarekin, non kromatografia, elektroforesia eta proteinen purifikazioaren inguruko gaietan sakonduko den. Aipatzekoa ere 1. mailako Biokimika I ikasgaiaren laborategi praktiketako jardueretikiko osagarritasuna ere baduela OMBk.</p>			
<b>GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK</b>			
<p>Etorkizunean ikerketa-zentro, bioteknologia-industria edo irakaskuntza-erakundeetan lan egitea ahalbidetuko dizuen formazioa jasotzea da ikasgai honen helburu orokorra.</p> <p>Horretarako landuko diren konpetentziak honakoak izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Laborategian egoki lan egiteko ezagutza jasoko duzue.</li> <li>- Biokimikan ohikoa den instrumentazioa eta metodologia esperimentalak erabiltzen trebetasuna hartuko duzue.</li> <li>- Alorreko literatura zientifikoa maneiatzen eta aplikatzen ikasiko duzue.</li> <li>- Esperimentuak diseinatu, hauek burutu, deskribatu eta aztertuko dituzue, eta emaitzak kritikoki balioztatzen, eta ondorioak ateratzen ikasiko duzue.</li> </ul>			
<b>EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK</b>			
<p><b>Gaiak</b></p> <p>I BLOKEA: Bilaketa bibliografikoak. Artikuluak eta aldizkari zientifikoak eta datu biltegietan egindako bilaketak.</p> <p>1. gaia: Aldizkari eta artikulu zientifikoak. Zientzia artikulu baten egitura. Nola idatzi behar da artikulu bat? Nola argitaratzen da? Zientzia aldizkari motak. Inpaktu faktorea. Formatu elektronikoa duten aldizkariak.</p> <p>2. gaia: Bibliografia bilaketak. Zientzia artikuluen datu-biltegiak. PubMed izeneko datu-biltegia. PubMed-eko erregistro baten egitura. PubMed-eko bilaketa motorra. Bilaketarako estrategiak. Science Citation Index.</p> <p>II BLOKEA. Biokimikako laborategian egoki jardutea. Metodo zientifikoaren garrantzia biokimikako ikerkuntzan.</p> <p>3. gaia: Metodo zientifikoak biokimikako ikerkuntzan. Hipotesi bat planteatzea. Esperimentuen diseinua. Emaitzak tratatzea eta balioztatzea. Ondorioak lantzea. Gogoeta etikoak.</p> <p>4. gaia: Biokimikako laborategian lana modu egokian egitea, segurtasuna. Arriskuak aurreikustea (arrisku fisiko, kimiko, biologiko eta erradiologikoak). Segurtasun neurri orokorrak eta norbanakoenak. Segurtasun arauak. Larrialdi egoeretako jokabideak.</p> <p>III BLOKEA: Esperimentazio mailak biokimikan. Zelula-sistemak eta zelulen frakzionamendua.</p> <p>5. gaia: Esperimentazio-mailak biokimikan. Animalia osoa, organo, ehun edo zelula isolatuekin egindako ikerketak. Molekula mailako ikerketak (egitura eta funtzioa). Zelulen sistemak. Zelula mota ezberdinak banatzeko teknikak: zentrifugazioa, elutriazio zentrifugoa, fluxu zitometria. Zelulen hazkuntzak. Zelulen lerroak. Zelulen kuantifikazioa eta bideragarritasuna. Hemozitometria.</p> <p>6. gaia: Zelulen frakzionamendua. Homogeneizatzeko eta erauzkin gordina lortzeko metodoak. prestaketa zentrifugazioa (diferentziala eta dentsitate-gradientean). Zelularen organuluak identifikatzeko entzima markatzaileak. Organuluen bideragarritasuna. Zentrifugazio analitikoak.</p> <p>IV BLOKEA: Biokimikako laborategian erabiltzen diren oinarrizko teknikak.</p> <p>7. gaia: Kromatografia. Oinarrizko kontzeptu orokorrak. Polaritatean oinarritutako kromatografia teknikak (likido-likido, gas-likido eta likido-solido kromatografiak). Kargaren arabera kromatografiak (ioi-trukeko kromatografiak). Tamainan oinarritutako kromatografiak (gel-iragazpeneko kromatografia). Afinitate-kromatografia.</p> <p>8. gaia: Elektroforesi-teknikak. Oinarrizko kontzeptu orokorrak. Elektroforesirako euskarriak. Tindaketa metodoak. Gradientean egindako elektroforesia. SDS-PAGE (SDS eta poliakrilamidaz osatutako geletan egindako elektroforesia). Fokapen isoelektrikoa. Bi dimentsioko elektroforesia. Elektroforesi kapilarra.</p> <p>9. gaia: Espektrofotometria-teknikak. Oinarrizko kontzeptu orokorrak. Kromoforoak biokimikan. Xurgapen molarreko koefizienteak. Lambert-Beer legea. Tresneria: espektroskopioa ikusgaia eta ultramorea.</p> <p>10. gaia: Saio entzimatikoen diseinua. Jarduera katalitikoa kuantifikatzeko metodoak. Parametro zinetikoen kalkulua esperimentalak.</p>			



11. gaia: Erradiokimika-teknikak. Atomo eta isotopoak. Desintegrazio erradioaktiboa. Igorpen erradioaktibo motak. Erradioaktibitate unitateak. Erradioaktibitatearen detekzioa eta neurketa.
12. gaia: Immunokimika-teknikak. Antigorputzak. Antigeno-antigorputz elkarrekintza. Antigorputz poliklonalak eta monoklonalak. Antigorputzen markaketa. Immunoprezipitazioa. Immunosaiok (ELISA, IRMA, RIA).
13. gaia: Hibridazio-teknikak. DNAREN desnaturalizazioa eta birnaturalizazioa. Eragin hipokromiko eta hiperkromikoa. Zunden prestaketa eta markaketa. Azido nukleikoen hibridazioa. Polimerasaren erreakzio kateatua (PCR). RT-PCR. DNA txipak.
14. gaia: Identifikazio-teknikak (plapaketa edo blotting-a). Oinarrizko kontzeptuak. Transferentzia. Southern plapaketa. Northern plapaketa. Western plapaketa. Dot plapaketa.

#### Ikasgelako praktikak

Problemen ebazpenaren bidez eskola magistraletan ikasitakoa garatuko duzue:

- Zentrifugazioari buruzko problemak.
- Erradioaktibitate-problemak.
- Espektrofotometria-problemak.
- Entzimen erreakzio akoplatuei buruzko problemak.
- Hasleen diseinua.

#### Ordenagailuko praktikak

- Bibliografia bilaketak PubMed eta ISI-WOKen.

#### Laborategiko praktikak

- Zelulak apurtzeko metodoak.
- Sakaroszko dentsitate gradientean egindako zentrifugazioaren bidezko kloroplastoen purifikazioa.
- Mitokondrioak isolatu: malato deshidrogenasa aktibitatea.
- Gel iragazpeneko kromatografia.
- Arrautza-zuringoko lisozimaren purifikazioa ioi-trukeko kromatografia bidez.
- Proteinen poliakrilamidazko geletan egindako banaketa.
- Azido nukleikoen agaroszko gel-elektroforesia. Plasmido DNAREN elektroforesi bidezko karakterizazioa.

#### Mintegiak

Aurkezpen txukunak egiten ikasiko duzue; horretarako, ikasgaiarekin zer ikusia duten gaiak landuko dituzue.

## METODOLOGIA

Ikasturtean zehar emango diren irakaskuntza mota desberdinetan parte hartzea derrigorrezkoa da ikasgaia gainditzeko.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	40	5	10	30	5				
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	60	7,5	15	45	7,5				

#### Legenda:

M: Magistrala      S: Mintegia      GA: Gelako p.      GL: Laborategiko p.      GO: Ordenagailuko p.  
 GCL: P. klinikoak      TA: Tailerra      TI: Tailer Ind.      GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Ebaluazio mistoaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia 45%
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) 45%
- Lanen, irakurketen... aurkezpena 10%

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Teoria azterketa %45: erantzun egokiak, adierazpena, arrazoitzea eta terminologia zientifikoaren erabilera. Erantzunen %50ek zuzenak behar dute izan.

Laborategi Praktikak %30: bertaratzea, jarrera eta txostenaren txukuntasuna, argitasuna eta zuzentasuna; azterketa, erantzunen %50 zuzenak behar dira izan.

Ordenagailu Praktika %5: bertaratzea, jarrera eta egindako ariketak entregatu.

Mintegia %10: bertaratzea, jarrera, informazioaren antolakuntza eta egituraketa, aztertzeko eta laburbiltzeko gaitasuna, aurkezpenaren argitasuna eta solasaldian parte hartzea.

Ariketak %10: bertaratzea eta problemen ebazpena; azterketa, erantzunen %50 zuzenak behar dira izan.

\*Ohiko (amaierako azterketaren 1. deialdia) eta ez ohiko (amaierako azterketaren 2. deialdia) azterketetara aurkeztu ahal izateko, ikasturtean zehar emandako irakaskuntza mota desberdinetan parte hartu izana ezinbestekoa izango da. Deialdi bietan azterketetan erantzunen %50 zuzena izan behar da ikasgaia gainditzeko. Ohiko deiladian irakasgaia gainditzen ez denean, gainditu diren ataletako kalifikazioak gordeko dira ikasturte horretako ez-ohiko deialdirako.

\*1. zatiaren edota 2. zatiaren azterketetara aurkeztuz gero, hauek behin betiko gainditzeko erantzunen %70 zuzenak behar dira izan.

#### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ez ohiko (amaierako azterketaren 2. deialdia) azterketetara aurkeztu ahal izateko, ikasturtean zehar emandako irakaskuntza mota desberdinetan parte hartu izana ezinbestekoa izango da. Azterketaren erantzunen %50 zuzena izan behar da ikasgaia gainditzeko. Ohiko deiladian irakasgaia gainditzen ez denean, gainditu diren ataletako kalifikazioak gordeko dira ikasturte horretako ez-ohiko deialdirako.

#### **NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

Irakasgaiaren eGela

#### **BIBLIOGRAFIA**

##### **Oinarrizko bibliografia**

- Wilson, K. and Walker, J. (eds.)(2010). Principles and Techniques of Biochemistry and Molecular Biology. 7th edn. Cambridge University Press.
- Roca, P. et al., (2003). Bioquímica. Técnicas y Métodos. Editorial Hélice.

##### **Gehiago sakontzeko bibliografia**

- Boyer, R. F. (2009). Biochemistry laboratory: modern theories and techniques. Pearson Education.

##### **Aldizkariak**

Ekaia  
 Elhuyar  
 Investigación y Ciencia

##### **Interneteko helbide interesgarriak**

<http://www.zientzia.net/>  
<http://zthiztegia.elhuyar.org/>  
<http://workbench.concord.org/database/>

#### **OHARRAK**

## ***Lehenengo lauhilekokoak***

---

<b>IRAKASKUNTZA-GIDA</b>		2014/15	
<b>Ikastegia</b>	310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea	<b>Zikl.</b>	Zehaztugabea
<b>Plana</b>	GBIOQU30 - Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua	<b>Ikastaroa</b>	1. maila
<b>IRAKASGAIA</b>			
26711 - Zelulen Biologia		<b>ECTS kredituak:</b>	6
<b>GAITASUNAK / AZALPENA / HELBURUAK</b>			
<p><b>GAITASUN ESPEZIFIKOAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ulertzea zelularen kontzeptua, egitura eta zereginak, bere osagaienak (mintzak, zitosola eta zitoeskeletoa, nukleoa, endomintz-sistema, energia konbertsiorako organuluak) barne.</li> <li>- Ezagutzea zelularen eta kanpo medioaren (zelula kanpoko seinaleak, zelula kanpoko matrizea) arteko eta zelulen arteko elkarrekintzak.</li> <li>- Ulertzea zelularen dinamikaren mekanismoak (zelularen zikloa, zatiketa eta heriotza).</li> </ul> <p><b>ZEHARKAKO GAITASUNAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Analisi eta sintesirako ahalmena garatzea.</li> <li>- Antolakuntza eta planifikaziorako ahalmena garatzea.</li> <li>- Talde-lana egiten ikastea.</li> </ul>			
<b>GAI ZERRENDIA</b>			
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. ZELULEN BIOLOGIAREN KONTZEPTUA. Garapen historikoa. Zelularen Teoria. Zelulen Biologiaren diziplinak. Bestelako diziplinekiko harremanak.</li> <li>2. ZELULAREN KONTZEPTUA. Bizidunen antolakuntza-mailak. Zelulen ezaugarri orokorrak. Zelula eukariotikoaren sorrera eta eboluzioa.</li> <li>3. ZELULAREN MINTZAK. Kontzeptua. Propietateak. Osagaiak eta antolakuntza. Ezaugarriak. Funtzioak. Mintz plasmaticoa. Desberdintzapen funtzionalak. Biosintesia eta birziklapena. Iragazkortasun selektiboa. Garraio pasiboa eta garraio aktiboa. Zelulen arteko komunikazio eta seinaleztapena. Kontzeptua. Komunikazio bideak eta seinaleak. Komunikazio-motak. Hartzaileak. Zelularen erantzuna.</li> <li>4. ZELULAREN KANPOKO MATRIZEA ETA ZELULARTEKO LOTURAK. Kontzeptua eta zelularen kanpoko matrizearen osagaiak. Oinarriko substantzia. Zuntzak. Ezaugarriak. Biogenesia, mantenua eta berritzea. Xafla basala. Zelulen pareta. Zelularteko loturak. Kontzeptua eta sailkapena. Lotura hertsia. Aingurapen-loturak. Desmosoma trenkadatua. Interdigitazioak. Gardainadura-loturak.</li> <li>5. ZITOSOLA ETA ZITOESKELETOA. Zitosola: kontzeptua eta ezaugarriak. Konposizioa. Inklusioak. Zereginak. Zitoeskeletoa: kontzeptua, osagaiak, antolakuntza eta zereginak. Aktinazko piruak. Egitura eta konposizioa. Mihiztapena. Aktinari elkarturiko proteinak. Mintz plasmaticoarekiko elkarrekintza. Mikrobiloskak eta bilbe terminala. Zereginak. Mikrotubuluak. Egitura eta konposizioa. Mihiztapena. Mikrotubuluaren gune antolatzaileak. Mikrotubuluei elkarturiko proteinak. Zereginak. Piru ertainak. Egitura eta konposizioa. Mihiztapena. Ezaugarriak. Sailkapena. Zereginak.</li> <li>6. ZELULAREN NUKLEOA. Ezaugarriak. Egitura eta funtzioa interfasean. Nukleoaren gaineztadura: osaera eta antolakuntza. Poroa: egitura eta funtzioa. Elkartruke nukleo-zitoplasmaticoa. Xafla nuklearra: konposizioa, antolakuntza molekularra eta funtzioak. Nukleoaren gaineztaduraren biogenesia. Nukleoplasma: osaera eta funtzioak. Kromatina. Egitura eta itxura mikroskopikoa: eukromatina eta heterokromatina. Osaera. Antolakuntza-mailak. Funtzioak.</li> <li>7. NUKLEOLO ETA ERIBOSOMAK. Nukleoloaren itxura eta egitura. Osaera. rRNAren sintesia eta prozesamendua. Zitoplasmatico azpiunitate erribosomikoen eraketa eta garraioa. Erribosomen ezaugarriak. Egitura. Konposizio molekularra. Polisomak. Erribosomen zeregina. Proteinen sintesiaren eraentzea.</li> <li>8. ENDOMINTZEN SISTEMA OROKORRA. Kontzeptua, osagaiak, sorrera eta izaera funtzionala. Erretikulu endoplasmaticoa. Motak: erretikulu endoplasmatico pikortsua (RER) eta leuna (SER). RERen funtzioak: proteinen sintesia, eraldaketak eta translokazioa. SERen funtzioak: lipidoen sintesia eta eraldaketa, detoxifikazioa. Barietate bereziak. Golgi aparatua. Polaritate funtzionala. Zereginak: proteinen eraldaketa, lipidoen sintesia eta eraldaketa. Besikulen bidezko proteinen eta lipidoen garraioa. Segregazioa eta paketatzea. Exozitosia: eraendu gabekoa eta eraendutakoa. Biogenesia. Lisosomak: egitura eta konposizioa. Funtzioen arabera sailkapena. Funtzioa: zelula barneko digestioa. Lisosomen biogenesia. Endozitosiaren kontzeptua eta motak: fluidoaren endozitosia; hartzaile bidezko endozitosia. Endosoma. Transzitosia. Fagozitosia.</li> <li>9. ENERGIAREN KONBERTSIOAK ORGANULUAK. Mitokondrioak. Morfologia. Egitura eta osaera: kanpo mintza, mintzen arteko gunea, barne mintza, matrizea. Fosforilazio oxidatiboa. Termogenesia. Mitokondrioren genoma. Biogenesia eta jatorri ebolutiboa. Plastidoak eta kloroplastoak. Egitura eta aniztasuna. Osaera. Fotosintesia. Kloroplastoen genoma. Biogenesia. Peroxisomak. Egitura eta osaera. Zereginak. Beste organuluekiko elkarrekintza funtzionala. Glioxisomak eta bestelako mikrogorputzak. Biogenesia.</li> <li>10. ZELULEN ZIKLOA. Zelulen berriztapena: kontzeptua eta definizioa. Zelulen zikloaren faseak. Zelulen zikloaren eraentzea. Faktore fisiologikoen bitarteko eraentzea.</li> <li>11. ZELULEN ZATIKETA. Zelulen zatiketa eta mitosiaren kontzeptuak. Mitoziaren faseak. Mitozian zeharreko organulu</li> </ol>			

zitoplasmatikoen eraldaketak. Ugalketa eta sexualitatea. Meiosiaren faseak.

12. ZELULEN HERIOTZA. Zelulen zahartzapena. Zelulen zikloa eta zahartzapena. Erradikal askeak zahartzapenaren oinarrian. Telomerasa. Zelulen heriotza: nekrosia. Zelulen heriotza programatua: apoptosia. Apoptosia eta nekrosiaren arteko desberdintasunak.

#### LABORATEGIKO PRAKTIKEN EGITARAUA

- 1.- Mikroskopia
- 2.- Gertakuntza zito-histologikoa
- 3.- Zelula eukariotoen ezaugarri orokorrak
- 4.- Mintz plasmaticoa eta zitosola
- 5.- Nukleo interfazikoa eta zelulen zatiketa
- 6.- Organulu zitoplasmatikoak
- 7.- Ultrastrukturaren integrazioa

#### GELAKO PRAKTIKEN EGITARAUA

- 1.- Zelularen ultrastruktura: albuma burutzeko jarraibideak
- 2.- Mintz plasmaticoa eta desberdintzapenak
- 3.- Zitosola, zitoeskeletoa eta zitosiak
- 4.- Nukleoa eta zelulen zatiketa
- 5.- Endomintz-sistema
- 6.- Ultrastrukturaren integrazioa

#### MINTEGIAK

- 1-3.- Ultrastrukturaren integrazioa

### IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	36	3	6	15					
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	54	4,5	9	22,5					

**Legenda:** M: Maistrala S: Minteia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.  
 GCL: P. klinikoa TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

#### Argibideak:

Gelako praktiketan burutu beharreko lana talde-lana izango da.

### EBALUAZIOA

- Garatu beharreko azterketa idatzia
- Taldeko lanak

#### Argibideak:

OHKO DEIALDIAREN EBALUAZIOA: Ikasgaiaren nota hurrengo portzentajeak aplikatuz kalkulatu da soilik atal bakoitzeko kalifikazioa 5 edo gehiago baldin bada.

- TEORIA %50a. Bukaerako azterketa. Ebaluazio irizpideak: erantzunaren izaera egokia, terminologia zientifikoaren erabilera, adierazpena eta arrazoibideak.

- LABORATEGIKO PRAKTIKAK %30a. Kurtsoan zehar egindako kontrolak eta bukaerako azterketa. Ebaluazio irizpideak: erantzunaren izaera egokia, irudien identifikazio eta interpretazio zuzena.

- GELAKO PRAKTIKAK ETA MINTEGIAK %20a. Talde-lana eta bukaerako azterketa. Ebaluazio irizpideak: informazioaren antolaketa eta egituraketa, terminologia zientifikoaren erabilera, sintesi eta analisi ahalmenak, baliabide egokien erabilera. Irudien identifikazio eta interpretazio zuzena.

EZ OHKO DEIALDIAREN EBALUAZIOA: Ikasgaiaren nota hurrengo portzentajeak aplikatuz kalkulatu da soilik atal bakoitzeko kalifikazioa 5 edo gehiago baldin bada.

- Teoria %50a: Azterketa.
- Praktikak %50a: Irudiak ezagutzeko azterketa.

### NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

### BIBLIOGRAFIA

#### Oinarrizko bibliografia

Alberts B, Bray D, Hopkin K, Johnson A, Lewis J, Raff M, Roberts K, Walter P. 2011. Introducción a la Biología Celular. Ed. Médica Panamericana. 3. Edizioa.  
 Karp G. 2010. Biología Celular y Molecular. 6. edizioa. McGraw-Hill-Interamericana, México DF.  
 Marigómez I, Cajarville MP. 1999. Zelula. Zelula eukariotikoaren azalpenerako testuliburua. I zatia. Udako Euskal Unibertsitatea, Iruñea.

Paniagua R, Nistal M, Sesma P, Álvarez-Uría M, Fraile B, Anadón R, Sáez FJ. 2007. Citología e Histología Vegetal y Animal. 3. Edizioa. McGraw-Hill-Interamericana, Madrid.

### **Gehiago sakontzeko bibliografia**

Alberts B, Johnson A, Lewis J, Raff M, Roberts K, Walter P. 2010. Biología Molecular de la Célula. 5. Edizioa, Ed. Omega, Barcelona

Becker W.M., Kleinsmith L.J., Hardyn J. El mundo de la célula. 2007. Pearson Education, S. A. Madrid.

Lodish H, Darnell J, Berk A, Zipursky SL, Matsudaira P, Baltimore D. 2002. Biología Celular y Molecular. 4. Edizioa, . Ed. Médica Panamericana. Buenos Aires.

Pollard TD, Earnshaw WC. 2002. Cell Biology. Ed. Saunders, Philadelphia.

### **Aldizkariak**

#### **Interneteko helbide interesgarriak**

Mikroskopia:

<http://temsamprep.in2p3.fr/accueil.php?lang=eng>

[http://www.isftic.mepsyd.es/w3/recursos/bachillerato/bioygeo/ventana\\_hook/index.html](http://www.isftic.mepsyd.es/w3/recursos/bachillerato/bioygeo/ventana_hook/index.html)

[http://www.lifesci.sussex.ac.uk/home/Julian\\_Thorpe/cover.htm](http://www.lifesci.sussex.ac.uk/home/Julian_Thorpe/cover.htm)

<http://www.uni-mainz.de/FB/Medizin/Anatomie/workshop/EM/EMAtlas.html>

Orokorra:

<http://celliwood.blogspot.com/>

<http://www.ncbi.nlm.nih.gov/books/>

<http://webs.uvigo.es/mmegias/inicio.html>

<b>IRAKASKUNTZA-GIDA</b>		2014/15
<b>Ikastegia</b>	310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea	<b>Zikl.</b> Zehaztugabea
<b>Plana</b>	GBIOQU30 - Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua	<b>Ikastaroa</b> 1. maila
<b>IRAKASGAIA</b>		
26710 - Biokimika I		<b>ECTS kredituak:</b> 6
<b>GAITASUNAK / AZALPENA / HELBURUAK</b>		
<p>Biokimika eta Biologia Molekularreko Saileko ikasgai hau Biologia, Biokimika eta Biologia Molekularra zein Bioteknologiako Graduetako lehenengo mailan ematen da. Biokimika I lantzean ikasleak izaki bizidunetako molekulen egitura eta funtzioaz jabetzen dira, saiakera biokimiko errazak burutzen dituzten heinean beharrezko trebetasunak jorratzeaz gain, saiakeran lortutako emaitzen deskribatzea, analisisa eta interpretazioa ere landuz.</p> <p>Gaitasun espezifikak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Izaki bizidunak osotzen dituzten molekulen ezagutza egiturazko zein funtzio-mailan lortzea. Oinarrizko osagaiak zein egitura polimariakoak.</li> <li>- Biomolekula mota desberdinen egiturak bereiztea.</li> <li>- Erreakzio entzimatikoen oinarriak ulertzea: katalisi, zinetika- zein inhibizio entzimatiakoaren kontzeptuak jabetuz.</li> <li>- Jasotako ezagutzak ariketa zein problemen ebazpenetan era kualitatiboan eta kuantitatiboan aplikatzea.</li> <li>- Laborategian saiakera biokimiko errazak burutzeko behar diren oinarrizko trebetasunak garatzea.</li> </ul>		
<b>GAI ZERRENDA</b>		
